



Euskal Herriko HERRITARREN ARTEKO SAGARDO LEHIAKETA

Astigarragak sagardoarekin duen erlazioarengatik eta urtero ospatzen den Euskal Herriko Sagardo Lehiaketak izaten duen informazio ezagatik, uste dugu lehiaketa honen zenbait datu ematea egokia dela.

Lehiaketa honen antolaketari buruz, esan daiteke herriko hiru taldek hartzen dutela parte: Astigar, Gure Izarra eta Zipotza Elkarateak; bakoitzak bere eginkizuna duelarik lehiaketa honen barnean.

Lehiaketa hau 1986. urteko uztailan sortu zen. Bere lehen oinarriak Santa Ana egunean izan zituen. Egun hartan egin zen sagardo dastaketan sagardotegi gutxi agertu ziren (12 sagardotegietatik lau). Hau dela eta, zenbait astigarragako herritar mindurik sentitu ziren eta sagardo lehiaketa bat antolatzea pentsatu zuten. Aurrera pauso hau eman zutenak, Jose Mari Olaziregi, Patxi Olaziregi, Mikel Urruzola, Mikel Larrañaga eta Jose Mari Artola izan ziren. Hauek, sagardozaleengana jo zuten lehiaketa egiteko baimena eskatuz eta baita ere, laguntzaileen bila herriko elkarteengana joaz.

Lehiaketa honek bi helburu ditu. Bata, sagardotegi guztietara sagardoa probatzera dihoanari sagardoa probatzeko eman eta lehiaketan hoberena zein den hautatzeko aukera ematea. Bestea, sagardoaren promozioa izango litzateke.

Sagardo lehiaketa honekin lotuta, urtero egoten dira trikitilariak, txalapartariak, erromeria eta bertsolariak (urtero Sebastian Lizaso etortzen da, besteak aldatzen joaten dira urteetan zehar).

Urtero egoten den menua, «chorizo a la sidra», bakailua tomatearekin, kostila errea, gazta eta tarta izaten da; azkenik, kafea, kopa eta puroa. Hala ere, aurtan aldatu egingo da.

Lehiaketa arauak, honako hauek izaten dira: 1. Sagardotegi bakoitzak ehun botila jartzen ditu. 2. Sagardotegi bakoitzaren sagardoa hiru minuturo banatzen da. 3. Afaltzen ari diren guztiek berdin edango dute. 4. Afaltzen hasi eta gero agertzen diren pertsonak ezingo dute puntuatu. 5. 18 urte baino gutxiagoko pertsonak ezingo dute afaldu.

Lehiaketa honetan bi lehiaketa sartzen dira, hau da, bata herritarrena, garrantzitsurena; bestea, sagardozaleena izango da. Irabazleak jasotzen duen trofeoa Tomas Muruak egindakoa da. Tabernek ere beren trofeoa ematen dute.

Herritarrek ere bere laguntza eskeintzen dute ospakizun hau aurrera eramatearren. Pentsatu izan da, jai hau gauean bakarrik ez egitea, egunean zehar ere zerbait egitea. Horregatik, aurtengo lehiaketan pentsatu da, arratsalde partean, Euskal Herriko Kirol proben txapelketa egitea, honela, egun osorako jaira bidean aurrera pauso haundi bat emango da.

Egindako Sagardo Lehiaketen emaitzak

Lehiaketen datoak	1. goa	2.
Burututako eguna	1.986ko Irailak 20	1.987ko Irailak 19
Parte harturiko sagardotegiak	30	28
Parte harturiko herritarrek	300	350
Herritarrek aukeratutako sagardoa	1. SARASOLA (Astigarraga) 2.146 puntuz 2. GURUTZETA (Astigarraga) 2.142 " 3. IRIGOIEN (Astigarraga) 2.135 "	1. IPARRAGIRRE (Hernani) 2. OIARBIDE (Astigarraga) 3. GARTZIATEGI (Astigarraga)
Sagardogileek aukeratutakoa	1. EIZMENDI (Hernani) 192 puntuz	1. IPARRAGIRRE (Hernani)
	3.	4.
	1988ko Irailak 17	1.989ko Irailak 16
	28 350	26 350
	1. LARRARTE (Astigarraga) 2.474 puntuz 2. OIARBIDE (Astigarraga) 2.386 " 3. GURUTZETA (Astigarraga) 2.342 "	1. ABURUZA (Aduna) 2.585 puntuz 2. EULA (Urnieta) 2.578 " 3. URRUZOLA (Urnieta) 2.576 "
	1. LARRARTE (Astigarraga) 214 puntuz	1. URRUZOLA (Urnieta) 190 puntuz
	5.	6.
	1990eko Irailak 15	1.991ko Irailak 21
	30 350	29 350
	1. GURUTZETA (Astigarraga) 2.580 puntuz 2. ALTZUETA (Hernani) 2.549 " 3. PETRITTEGI (Astigarraga) 2.546 "	1. OTXUA-ENEA (Hernani) 2.507 puntuz 2. IPARRAGIRRE (Hernani) 2.391 " 3. ISASTEGI (Tolosa) 2.363 "
	1. EGILUZE (Orereta) 206 puntuz	1. IRIGOIEN (Astigarraga) 178 puntuz
	7.	8.
	1992ko Irailak 19	1.993ko Irailak 18
	31 350	30 350
	1. OTXUA-ENEA (Hernani) 2.709 puntuz 2. ALTZUETA (Hernani) 2.613 " 3. URRUZOLA (Urnieta) 2.600 "	1. MENDIZABAL (Astigarraga) 2.570 puntuz 2. OIARBIDE (Astigarraga) 2.475 " 3. EULA (Urnieta) 2.466 "
	1. OIARBIDE (Astigarraga) 230 puntuz	1. ASTIAZARAN (Zubieta) 227 puntuz
		9.
		1995ko Irailak 16
		30 420
		1. BARKAIZTEGI (Martutene) 2. ALTZUETA (Hernani) 3. EULA (Urnieta)
		1. BARKAIZTEGI (Martutene)

